

**HABEren IKASTURTEA IREKITZEKO EKITALDIA**
APERTURA DE CURSO DE HABE

2015-09-11 Bilbao 11-09-2015

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Herri agintariok, herri ordezkariok, euskeraren alorrean eragileok zareten guztioi, jaun andreok, egun on denoi.

Aurten 50 urte betetzen dira euskaraz alfabetatzeko lehenengo kanpaina abian jarri zenetik. Gaur, lehenengo alfabetatze-eskola haiek ekarri nahi ditut gogora: Rikardo Arregi zenaren ekimenez eta Euskaltzaindiaren babespean antolatu ziren.

Gazte euskaltzale haiek ikusmen handia izan zuten. Garbi ikusten zuten euskarak kultura hizkuntza ere behar zuela izan; ezin zuela etxera edo lagunartera mugaturik iraun. Gizarte berriaren beharretara egokitu behar zela, gizarte modernoaren beharretara.

Ekimen hark berehala azaleratu zuen euskal gizartean zegoen nahi eta borondate argi bat. Laster batean, euskalduntzea gailendu zitzaion alfabetatzeari. Euskara ikasi nahi zuten herritarrak gau-eskoletara hurbiltzen hasi ziren. Harrigarria bazaizue ere, ni ere gau-eskoletan irakas zintzan, aritutakoa naiz.

Handik hona bide luzea egin du helduen euskalduntzeak, batez ere, autogobernua eskuratu genuenetik aurrera. Duela hogeita hamar urte, euskara sustatzeko politika publikoak gorpuztu ziren. Garbi ikusi genuen euskara biziberritzeko eginkizuna belaunaldi arteko eginkizuna zela. Denok gara beharrezkoak.

Hizkuntzari dagokionez, gure legeriak ez du euskara mugatzen gizatalde, lurralde edo esparru jakin batzuetara bakarrik. Ez; aitzitik, guztion ondare egiten du euskara: euskal hiztun diren herritarrena bezalaxe, erdal hiztun direnena ere.

Euskarari buruzko oinarrizko lege-araubideak herritar guztiei aitortzen die euskara jakiteko eta erabiltzeko eskubidea. Legezko oinarri hori aintzat hartuz, proposatu zion Eusko Jaurlaritzak Legebiltzarrari, heldutan euskara ikasteko aukera, Bizialdi Osoko Ikaskuntzaren Legearen esparruan txertatzea. Hori da

legealdi honetan onartu den lehenbiziko legea. Ziur nago lege horren garapenean aukera berriak sortu ahal izango ditugula euskara edozein adinetan ikasi ahal izateko.

Gizarte elebiduna osatzea dugu helburu, eta gizarte elebidunak herritar elebidunak behar ditu. Horretan ari gara etengabe, eta hirurehun milatik gora hiztun berri irabazi ditu euskarak. Berriz diot, hirurehun milatik gora.

Horietatik heren bat helduen euskalduntzeak eman ditu, euskaltegietatik irten dira. Izugarritzko urratsa eman dugu. Baina oraindik asko dugu egiteko. Oraindik biztanle heldutan asko dira elebakar direnak. Horietako asko nahi ditugu motibatu, nahi ditugu erakarri, euskara ikastera.

Inoiz ez da berandu hizkuntza bat ikasteko. Argi erakutsi duzue hori euskaltegiok. Hizkuntza bat ikasteak abantaila asko ematen dizkio norberari. Abantaila asko dakartzkio gizarteari ere, berdintasunerako bere alea jartzen du heldutan euskara ikasten duen herritar bakoitzak, gizarte-kohesiorako zurkaitz berri bat.

Beraz, euskara ikasteko pausua ematera gonbidatu nahi ditut herritar elebakarrak. Ikasteko pausu hori emateko prest dauden herritarrei gero eta aukera hobeak eskaintzea da gure ardura.

Badakit, euskaltegietan, HABErekin batera, ahalegin handiak egiten ari zaretela irakasbideak hobetzen. Curriculum berria izango duzue datorren ikasturtetik aurrera. Europako Markora erabat egokitzeaz gainera, Europako Markoa gure ezaugarrietara egokitzeak aukera emango digun Curriculum berria.

Jakizue, heldu euskaldun berri bakoitza ekarpen garrantzitsua dela gure gizartearentzat. Zenbat eta elebitasun zabalagoa, orduan eta elkarbizitza hobe, orduan eta berdintasun sendoagoa.

Hori goiburutzat hartuz, pausuz pausu aurrera egiten ari gara. Legealdi honen hasieratik, euskararen sustapena zehar-lerro gisa ulertu nahi izan dugu.

-Lehenengo neurria Jaurlaritzako sail guztietan Euskara Unitateak sortzea izan zen.

-Halaber, Jaurlaritzak eratu dituen hamalau plan estrategikoetako bat izan da euskarari buruzkoa: 2014an Euskararen Agenda Estrategikoa onartu genuen.

-Euskaltegi publiko eta pribatu homologatuentzako, euskaltegiko ikasleentzako eta mundu zabaleko euskal etxeentzako diru-laguntza deialdiak egin ditugu urtero. Ikasturte berri honetarako 30 miloi euro onartu ditugu dagoneko, euskaltegien jarduera finantzatzeko eta ikasleentzat ikasprozesu eraginkorrak sustatzeko.

Badakigu, ondo jakin ere, ez dagoela dena eginda. Badakigu badela zer hobeturik. Gure erronka da, erakunde maila guztien arteko elkarlanaren bidez, helduen euskalduntzeari behar besteko egonkortasuna ematea.

Bukatzer a noa. Joan den 50 urteko ibilbideari jarraipena eman behar diogu, merezi du eta. Orduan bezala, gaur ere, edozein adinetan ikasi daiteke euskara, posiblea da eta positiboa.

Euskara ikastea ez da inoren kalte, norberaren eta beste guztion mesede baizik. Euskara heldutan ikasteko pausua ematen duenak ekarpen eskerga egiten dio bizikidetzari.

Honenbestez, ba, ikasturte berria ilusioz eta profesionaltasunez hasteko opa dizuet guztioi: HABEko lankideoi eta euskaltegietako lankideoi.

Seguru nago ikasturte arrakastatsua izango dela eta, iaz izan duzuen 33.000 herritarren kopuruak, jarraipena izan eta hazi izango dela. Itxaropen horrekin, pozik eta pozikibity, hasiera ematen diogu helduen euskalduntzearen 2015-2016 ikasturteari.

Mila esker guztioi.